ortzadar

larunbata, 2018ko maiatzaren 19a. 547. zenbakia

deia.eus/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak

JOSE RAMON ETXEBARRIA

Jubilaziotik gertu badago ere, ikerketaren eta ikasketaren lehen lerroan jarraitzen du gernikarrak

-- 4-5. orrialdeak --

Lukien uluak

Duela hiru urte jaio zen arren, orain dabil bere lehenengo diskoa grabatzen Mungiako **Lukiek**, 90eko hamarkadako rock alternatibo estiloaz bustitako hirukoa. Bilbao BBK Live jaialdian eskainiko dute hurrengo kontzertua

AINHOA LORES

HIRU urte atzera egin behar da Lukiek hirukoaren sustraiak ezagutzeko. Mungiako taberna batean biltzen ziren Josu Ximun Billalabeitia, Antton Goikoetxea eta Christian Rodriguez eta euren arteko solasaldietan bazen uneoro ateratzen zen gai bat: Elkarren artean musika talde bat sortzea. "Hitz egin bai, baina gero bete ez", gogoratu du Billalabeitiak, Belako taldeko gitarra-jotzaile eta kantaria denak.

Bitxia bada ere, futbol partida baten emaitzak bultzatuta hartu zuten behingoz taldea sortzeko erabakia. "Athletic-en partida bat ikusten topo egin genuen hirurok tabernan. Europa League-eko final laurdenak ziren eta irabaziko genuela ematen zuen arren, azkeneko momentuan Turinek markagailuari buelta eman zion eta txapelketatik kanporatu gintuzten", kontatu du abeslariak. Momentu horretako beherakada hiru musikariak entseatzen jartzeko giltzarria izan zen, "hurrengo egunean batu eta gure lehenengo kantua sortu genuen'.

PROIEKTU PARALELOA Hasiera batean, sei kantu sortu zituen taldeak, baina kontzertu bakarra eskaini ostean, geldialdi bat egitea erabaki zuen. Hiru musikariek beste talde batzuetan ere jotzen zuten eta dena ezin uztartuta, proiektu berria albo batera uztea erabaki zuten. Esan bezala, Billalabeitia Belako taldeko kidea da, Goikoetxea Leun taldeko baxu-jotzailea eta Rodriguez Shinova eta All I Need taldeetan ibilia da.

Josu Ximun Billalabeitia, Antton Goikoetxea eta Christian Rodriguezek osatzen dute Lukiek. JOSU CHAVARRI

2016an, hala ere, seriotasunez hartu zuten Lukiek proiektua eta berriz ekin zioten kontzertuak emateari. Belako, Zea Mays eta DMA's taldeen telonero izateko aukera ere izan zuten, horrek interesa piztu eta kontzertu gehiago eskaintzeko ateak ireki zizkielarik. "Abestien errepertorioa nahiko handitu da ordutik hona eta orain ez da erreza gure estiloa definitzea, korronte asko jorratzen baititugu gure kantuetan", azaldu du Billalabeitiak.

Abeslariaren arabera, ez da batere erreza bi proiektu paralelotan aritzea, "batez ere asteburuek bi egun baino ez dituztelako eta horrek ez duelako askorako ematen". Dena den, taldekideek hasieratik argi utzi zuten lehentasunak beste batzuk zirela eta alde horretatik badakite, "batzuetan Lukiek-ek itxaron egin behar duela". Hala ere, oso ondo moldatzen direla aitortu dute eta asteburu libre guztietan kontzertuak eskaintzen saiatzen dira.

90EKO KUTSUA Musika estiloari dagokionez, taldearen abestiak entzuterakoan 80 eta 90eko hamarkadetako punk rock estiloa etorri dakioke burura bati baino gehiagori. "Taldekideek gustu aldetik daukagun puntu komun esanguratsuena 90eko hamarkadako korronte musikal desberdinak dira, batez ere: punk-rock, grunge, shoegaze eta rock alternatiboak estaltzen duen espektro zabal guzti hori, baina momentu honetan hainbat lekutatik edaten ari gara, estilo poliedriko bat eginez", nabarmendu du Billalabeitiak. Mungiako hirukoak "denetarik" entzuten du, "gustu musikal oso desberdinak ditugu hirurok eta horrek taldearen baliabideak aberastu egiten ditu, abestiak konposatzerako orduan".

Taldearen hitzei dagokienez, gordinak direla eta gehienetan kutsu surrealista nabarmena daukatela azpimarratu du abeslariak. "Esaldi batzuk, osotasun literario baten parte izan beharrean, ideia margotuak edo komiki binetak direla esango nuke. Gela ilun batean geratzen ari den diapositiba proiekzio zaparrada abestu baten modukoak dira gure letrak. Irudi batzuk oso arin pasatzen dira eta ia ezin dituzu ulertu, beste batzuetan aldiz, diapositiben makina, irudi zehatz batean geldi-tzen da eta irudi hori oso astiro zugana; mugitzen da, gela iluna zena, argiz bustitzen da", azaldu du.

Propio sortutako abestiak eskaintzen ditu taldeak kontzertuetan, baina baita bertsioak ere. Disko fisikorik, hala ere, ez dute oraindik kaleratu, baina aurreratu dutenez, euren aurreneko lana grabatzen dabiltza: "Prozesua nahiko astiro doa, ez da erreza hainbat proiektu paralelo aldi berean izatea, eta grabaketa kontuetan, gainera, apur bat frustrantea ere suertatzen da".

Autoekoizpenaren bidea hartu du Lukiek hirukoak: "Gu geu gabiltza grabaketa burutzen eta denbora behar izaten da gauzak ondo egiteko", kontatu du Billalabeitiak. Kantu batzuk grabatu dituzte jada eta laster erabakiko dute zein formatutan eta nola argitaratu. "Beharbada beste talde batekin batera argitaratuko dugu, lehen egiten ziren *split demo*-ak bezala. Aurpegi bat gure lau kanturekin eta bestea lagun batzuen beste lau piezarekin, adibidez".

Lukiek izenak ere badauka bere azalpena. Izan ere, Goikoetxearen familiaren oilategia izandakoa da entseatzeko erabiltzen duten "lokala" eta hortik dator, hain zuzen ere, taldearen izena: "Lukie oiloen bila joaten zen, eta orain gu sartu gara oiloei lekua behingoz kentzera. Gainera, *lukie* (azeria, euskara batuan) Mungia inguruko berba bat da eta plus hori dauka guretzako".

Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Juan Jose Baños
Koordinazioa: Julene Larrañaga
Diseinua: Jesus Santamaria

Azala: Oskar Gonzalez
Maketazioa: Janire Neches
Lege Gordailua: BI 1720-06

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

IBERDROLA

KRITIKA IGOR ESTANKONA

Ispilu desolatuen jokoa

TITULUA: **'MUNDUKO POESIA KAIERAK'** EGILEA: **EZRA POUND** ARGITALETXEA: **SUSA, 2018**

MUNDUKO Poesia Kaieren bildumara iritsi behar zuen Ezra Poundek. Luigi Anselmik prestatu du poetari dagokion liburuxka, derrigor irakurri beharrekoa. Esate bat da, noski, derrigor irakurri behar dela Pound, baina Ameriketako Estatu Batuetako poesia modernoa eta bere izena loturik doaz. Ate asko ireki zituen Ezra Poundek, klasikoetatik edanez berregiteko garai berri baterako poesia. Beñat Sarasolak hala azaltzen du antologiatxo honen hitzaurrean: "Pounden obra irakurrita, bistakoa da berritasuna eta tradizioa ez direla zertan kontzeptu kontrajarriak izan; alderantziz, biak hertsiki loturik egon daitezke, halako moldez non, berritasuna tradizioa ulertzeko modu berri bat baino ez den. Ikustea besterik ez dugu zenbat erreferentzia tradiziozko aurki daitezke Pounden poesian. Ondare poetiko greko-latindarra aldean du beti, hainbesteraino ezen ugariak baitira erabiltzen dituen latinezko esamolde eta hitzak (poemen titulu direnak sarri). Halaber, trobadoreen poesiaren (*Provincia Deserta* poema ederra) eta Errenazimentuko poesiaren (*Dante*) arrastoa ez da nolanahikoa".

Ezra Pound jo zuten antiamerikartzat, faxismoaren korporatibismoa defendatzeagatik. Ameriketako Estatu Batuak maitatu ahala gorrotatu zuen bertako gobernua. Zorotzat hartu zuten, nahasketaritzat. Bere herrialdean ez zekiten garbi zer egin berarekin: edo sari literario bat eman, edo gerra krimenengatik espetxeratu. Italian hartu zuen babes, ideia duda-mudazkoen herrialde suzkoan. Halakoxe tenperamentua zeukan, intentsuki bizi izan zituen eztabaida politiko eta literario guztiak: "Arretaz behatzen diedanean txakurren ohitura bitxiei, / Deliberatu beharra daukat / Gizakia nagusitzen zaiela beste animaliei. // Gizakien ohitura bitxiei behatzen diedanean/ Aitortu behar dut, adiskide, txunditurik nagoela erabat".

Poesia poesiaren gainean egitearen maisua izan zen Pound. Beti delikatua, beti oreka grekoaren paradigma, Japoniatik Peloponesora –eta are, Erromara edo Probentzara– doan arku poetiko miragarria berridatzi zuen, berdetu zituen betiko eiteak: "Aurpegi horiek jendetzaren artean agertzea:/ Petaloak adaxka beltz, heze batean". Horregatik liburu hau hartzea da sinpletasunari buruzko tesi bat hartzea bezala, objektibitatearen eta hitz zehatzaren adibide. Perifrasirako ere, Poundek bati dauka biderik motzena eta eraginkorrena aukeratzeko gaitasun txundigarria: "Ezar nazazue edozein lanbidetan, / Idazle lanbide malapartatu honetan salbu, / non eta burmuinak erabili behar baitira tai / gabean". Poundek konpondu zuen arazoa formaren arazo betierekoa da. Liburu honetako poemak irakurriz konturatu naiz nahikoa malgua dela mezuari leku egiteko, eta nahikoa estua beharrezkoa ez dena kanpo uzteko. Metrikarekin zein gabe, bakoitzak bere buruari jartzen dio diziplina. Elioten apotegma: "Ezein bertso ez da libre, lan on bat egin gura duenarentzat".

Entziklopedia bezain sakona da bere jakintza, baina umearen xalotasunarekin idatziak dirudite zenbait pieza minimalista

Tradizioaren hizkuntza da Pounden poesian modernitatearen berbakera berria. Entziklopedia bezain sakona da bere jakintza, baina umearean –lehen poetaren– xalotasunarekin idatziak dirudite zenbait pieza minimalista. Pounden poesiak dardara egiten du Luigi Anselmiren itzulpen bikainean, eta dardara hori ez dakizu den hosto batena, edo ispiluan islatutako hosto batena.

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Azala erre**
Danele Sarriugarte. Elkar.
2. **Bihotz handiegia**
Eider Rodriguez. Susa.
3. **JenisJoplin**
Uxue Alberdi. Susa.
4. **Neska bat leku...**
Xabier Amuriza. Elkar.
5. **Nola heldu naiz ni...**
Kattalin Miner. Elkar.
6. **Honetara ezkero**
Arantxa Iturbe. Susa.

Ez Fikzioa

1. **Genero nahasmendua**
Judith Butler. Elkar.
2. **Uda batez Kurdistanen**
Zekine Turkeri. Elkar.
3. **Lurralde eta herria**
Eneko Bidegain. Pamiela.
4. **King Kong teoria**
Virginie Despentes. Elkar.
5. **Filosofiaren defentsak**
Iñigo Martinez (koord.) Erein.

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

ALBUM ILUSTRATUA

'Lohia'

Maite Mutuberria.
Pepitas de Calabaza.
162 orr. 21 euro.

Krisi baten koadernoa

"Psikologoak depresioa deituko lioke; mistikoak, norbere burua bilatzea; artistak, sormen krisia; pertsona 'praktikoak', denbora alferrik galtzea. Maite Mutuberriak 'Lohia' deitu zion". Halaxe aurkezten da lan hau. Berak sufritutako depresio sasoi batean landutako irudi eta testuak liburu batean kaleratu ditu Mutuberriak. Garrantzi handikoa izan arren, askotan arazo pribatutzat jotzen den gai bati buruzko gogoeta grafiko ausart eta sentikorra da lan hau. Ilustratzailea da ofizioz Mutuberria (Eltzaburu, 1985) eta haurrentzako eta hezkuntzara bideratutako proiektuen ilustrazioak lantzen ditu.

GAZTE LITERATURA

'Eskularru beltzak...'

Testua: Jasone Osoro.
Ilus.: Josevisky. Elkar.
132 orr. 15 euro.

Maltara bidaia

Eskularru Beltzak gazteei zuzendutako bildumaren hirugarren alea argitaratu du Jasone Osorok. 'Ikasbidaia' eleberrian protagonistek euren arteko harremanak aldatzen ari direla sumatuko dute, institutuko ikasbidaia prestatzen ari direla: Beyonce urduri dago telesailaren grabaketarekin, Karrek nahikoa lan du etxeko aldaketetara ohitzen, Beire bakarrik sentitzen da eta Lindak berak bilatu gabeko protagonismoa kudeatzen ikasi beharko du. Maltara egingo duten bidaian gauzak are gehiago nahastuko dira, eta itzultzean, ezbehar batek, boxeo-borrokaldi batean bezala, guztiak kao utziko ditu.

ZALDI EROA

JOSE RAMON ETXEBARRIA

INGENIARIA, IRAKASLEA ETA IDAZLEA

“Pentsatzeko gaitasuna lortu duen materia-multzo bat gara”

Hainbat alor lantzeagatik da ezaguna: zientzia euskaraz lantzen eta irakasten eginiko bideagatik, euskara batuaren hastapenetan zientziaren alorrean egindako dibulgazio lanagatik, eta baita politikagintzan eta gizarte mugimenduetan izan duen inplikazioagatik ere. 70 urteen atarian, bere ibilbideaz hitz egin digu Etxebarriak

MARKOS ZAPIAIN

Jose Ramon Etxebarria, Bilboko Ingenieritza Esk

SAN Mames ondoko Ingeniaritza Eskolan duen bulegoan egin dugun elkarrizketa luzean, Etxebarriak behin ere ez du erakutsi asko idazten dutenengan ohikoa den egolatria malenkoniatsuaren arrastorik ere. Apartak ditu talentua eta txinparta, ikusgarriak mintza-doinuaren ezusteko aldaketak, barre-algarak, teatroa, kantua, umorea, bizitasuna. 70 urteak eta jubilazioa hurbil dituen arren, lau orduko solasaldi intentsuaren amaieran hasieran bezain fresko dago. “Pentsatu egin behar da” eta “oso pozik nago” dira maizen darabiltzan esaldiak, eta bat datoz haren bizimoduaz suma daitekeenarekin, irudi baitu etenik gabeko gogoeta alai goi-mailako batek bizi duela, eta bere etxea maitasunaren, herrigintzaren eta zientziaren bidegurutzean eraiki duela.

Aspaldion tankera honetako elkarrizketak emailez egiten dira; zuk, ordea, nahiago duzu mintzoz, aurrez aurre.

Desberdinak dira ahozko hizkuntza eta idatzia, eta ahozkoa da bizirik dagoena. Orain esaten dizudan hau ez da inoiz errepikatuko modu berean, esana badoa berehala, eta idatzia ahozkoa ez galtzeko asmatu zen, besteak beste. Idatzia fosil bat da, ez da aldatzen; aitzitik, ahozkoa etengabe ari da aldatzen, bizirik dagoen beste edozer bezala. Dialektika bat sortzen da idatziaren eta ahozkoaren artean. Zertarako da beharrezkoa idatzia, ahozkoa bada bizirik dagoen bakarra? Batetik, partekatzeko; orain diotsudana ahaztuko genuke, idatzira eramango ez bagenu, eta idatziak elkarrizketa hau irakurleekin partekatzea ahalbidetuko digu. Bestetik, familiarekin eta lagunekin darabilzun ahozkoa nahiko mugatua da; testu fosilak mundu berriak zabaltzen dizkio irakurleari, animaliaren fosilak bezala paleontologoari. Zientzia egiteko eta jakintzetan sakontzeko idatzia behar da. Hilak ahalbidetzen ditu berpizteak. Era berean, ahozkoak biziberritzen du testu hilen kanposantua, irakasleak klaserako doktore-tesi bat darabilenean, kasu.

Gizakiak ere hiltzen dira. Lagun franko galdu dituzu berriki.

Hain zuzen, atzo hileta-elizkizun batean egon nintzen.

Interesgarria, sermoia? Beste hileta batean, Muxikan, abadeak esan digu Jesukristo GPS bat dela. Ez dizu Ama Elizaren altzora itzultzeko gogoa pizten?

Onartu beharra dago abilak direla metaforak gaurkotzen, baina ni ez naiz elizetan sartzen. Lagun min batena zen hileta, egon beharra neukan, baina ezin dut Eliza eraman, urtikaria sortzen dit. Eskola erlijioso batean ikasi nuen eta ideologizazioa sufritu egin dut. Gaur egun, ez dut ulertzen estatu akonfesional batean Elizari dirua zergen bidez ematea, ezta ere irakaskuntza publikoan Gotzaindegiak irakasleak hautatu eta soldatak, ostera, guztion dirutik ateratzea. Edota Institutuetako denbora mugatua erlijioa irakasten alferrik galtzea. Hori ikastorduak astrologiari eskaintzea bezain absurdoa da. Espainia egitez Israel eta Arabia bezain konfesionala da.

> **“Motibazioa da heziketarako bidea; eta, motibatzeko, ikasteak eta ezagutzeak dakarren gozamena kutsatu behar da”**
>
> JOSE RAMON ETXEBARRIA
> Ingeniaria, irakaslea eta idazlea

Bada esan izan duenik zientzia dela erlijio berria.

Ez. Egia zientifikoak behin-behinekoak dira, eta edonork egin ditzakeen esperimentuek egiaztatzen dituzte, unibertsalak dira. Begoñako Ama Birjinari umea osatzen laguntzeko errezatzeak ez du ez hanka ez bururik. *Zientziak funtziona, erlijioak no funtziona.* Eliza kontrol-talde bat ere bada, botere-egitura bat, eta bere sineskeriak, mitoak eta dogmak asmatu ditu fededunak menperatzeko, dirua biltzeko eta boterea atxiki eta areagotzeko. Dogmak ezin eztabaida daitezke. Ezin hierarkiaren aurka altxatu. Aldiz, zientzia irekia da, eszeptikoa, ez dago zientzia-gerrarik. Erlijioak zelakoak diren kontuan hartuta, indarrean dauden bitartean ezingo dira erlijiogerrak eragotzi. Zientziak ez du egiaren inongo monopoliorik aldarrikatzen, baina erlijio guztiak ei dira egiaren jabe, den-denak, egia horiek bateraezinak izan arren. Elizari loturiko guztiak dauka kutsu absurdo, zurrun eta biolento hori. Nekez aurkituko duzu Bibliak baino terrorismoaren apologia gordinagoa egiten duen libururik.

Lan handia egin duzu eta egiten diharduzu, harrigarria da zure testuen zerrenda.

Azalpen sinple bat dauka zerrenda horren luzerak: idazki horiek guztiak talde-lanen batean kokatuak dira. Eta ez bakarrik testugintzan; muturra sartu, ez dut sartzen taldeekimenetan baino: euskalgintza, politika, pankarta... Ez dut ekimen indibidualetan sinesten. Zaila izaten da taldekide guztiak ados jartzea helburu bati begira erabili beharreko estrategien inguruan, eta, desakordioa agertuz gero, bozketa iruditzen zait aurrera jotzeko metodologiarik egokiena. Ados ez egon arren, gehiengoak dioena onartu eta aitzina beti euskalduna. Horrela funtzionatu izan dugu. Hori bai, nire proposamenek beti kale: ez euskara batuan, ez ikastolen mugimenduan, ez politikan, ez pankartan, ez unibertsitateko klaustroan... ez dut gogoratzen bozketa bakar bat ere irabazi izana. Kartetan ere berdintsu, amaginarrebari ia inoiz ez diot irabazten, ehun eta bat urte bete dituen arren. Edozelan ere, auzolanean sortzen dira jolasak, unibertsitatea, zientzia eta hizkuntza bera ere bai, giza asmakuntzarik garrantzitsuena berau.

Zergatik iruditzen zaizu hain garrantzitsua?

Sua menperatzea, gurpila eta aipatzen diren gainerako asmakuntzak baino sakonagoa eta txundigarriagoa iruditzen zait, besteak beste, pentsamenduaren, jakintzen eta edozein giza sormen motaren oinarria delako. Eta hizkuntza ere kolektiboa da. Euskara ez dut niretzat bakarrik nahi, elkarrekin disfrutatzeko baino, egoera desberdin ahal bezain ugarietan eroso eta jostari erabiltzeko. Euskara sustatzeko ere, ez dut uste bakarti erromantikoaren ekimena bereziki eragingarria denik. Jenio batek bultzada berezi bat eman diezaioke, baina kolektiboa behar du eragitearen funtsak. Bestalde, hizkuntza guztien gaitasuna potentzialki identikoa da. Arrazoi historiko kontingenteengatik, sarritan militar hutsak, garatu dira batzuk beste batzuk baino gehiago, baina berez kulturarako ahalmen berdina dute, pertsona guztion duintasuna berdina den



olan duen bulegoan. OSKAR GONZALEZ

Hamabost urtez pankarta atzean

Jose Ramon Etxebarria 1948an jaio zen, Gernikan, eta han igaro zuen haurtzaroa. Nerabezaroa berriz Eibarren igaro zuen, eta helduaroa Bilbon, zehazki Santutxun. Hiru herri horiek erabaki dute haren nortasuna. Ingeniaritza Industrialean doktore, 1971n ekin zion Euskal Herriko Unibertsitatean Fisika irakasteari, Leioako campusa inauguratuz. Etxebarriak den-dena ikasi zuen erdaraz eta euskaraz modu autodidaktan alfabetatu zen, batez ere 'Anaitasuna' aldizkaria astiro eta arretaz irakurriz. 1972an Guardia Zibilek La Salven torturatu egin zuten. Hurrengo urtean Lore Akaiturrirekin ezkondu zen, ikastolako andereño eta doain deigarriak dituen gozogilea, adituek diotenez. Hiru alaba eta hiru biloba dituzte.

Ez zuenez Espainiako funtzionario izan nahi, zenbait lankiderekin batera irakaslego propioaren aldeko borrokari ekin eta 1992an unibertsitatetik kaleratu zituzten. Hamabost urtez egunero-egunero unibertsitateko sarreran pankarta baten atzean protesta egin ostean, 2007an itzuli zen unibertsitateko irakaskuntzara, eskatzen zuten moduko lankontratu baten jabe. Azken urteotan euskara teknikoa irakasten dabil Ingeniaritza Eskolan, 60ko hamarraldian karrera ikasi zuen ikasgela beretan.

legez, maila ekonomikoa edo adimenaren indarra gorabehera. Hori sinesten dut nik, behintzat.

Batzuek uste dute guk sortu egiten dugula matematika, eta beste batzuek, berriz, aurkitu egiten dugula; 'Teoria Fisikoen Oinarriak' lanean diozu matematika aurkitu egiten dugula, sortu baino gehiago.

Egia da giza gogoan dabilen edozer dela definizioz antropomorfikoa, gizakiak ezinbestez ezagutzen duela bere burmuinarekin, ezin duela bere buruaren gainetik jauzi egin objektibotasun aratz edo jainkotiar batera iristeko. Baina kontuz, geuk sortua dela esateak ez du matematika osoro azaltzen. Horra hor misterioa. Niretzat misterioa ez da Hirutasun Santua, baizik eta Euklidesen matematikak naturako hainbat esparru argitu eta ulertzeko balio izatea. Euklidesen liburua orain dela bi mila urte dago idatzirik, baina balio izaten jarraitzen du. Egia da XIX. mendearen amaieran beste geometria batzuk sortu zirela, baina Euklidesenak betiko balio du, eta ez soilik matematikarako. Horri buruzko esplikaziorik ez daukat, enigma bat da. Harrigarria da, bestalde, zenbait zenbaki naturan ere aurkitzea, esate baterako π eta e zenbaki irrazionalak. Desintegrazio erradioaktiboan ere agertzen dira. Pentsatzeko ematen dute. Ezin dira digituen bidez adierazi. Zenbaki horiek idazten hasi eta inoiz ez duzu amaituko, infinitura zoaz, baina aldi berean logikoak dira. Eta logika hori aurki dezakegu bai gizakion baitan eta bai antza denez gizakiongandik aparte ere badagoen errealitatean. Matematikak gizakia gainditzen duena ere ulertzeko balio izate horixe da, nolabait esateko, zientzialarion sinesmena.

Beraz, ez zatoz bat unibertsoa nolabait guk sortua dela dioten filosofoekin, guk haluzinatua, eta horregatik letozkeela bat matematika eta unibertsoa, gure burmuinak matematika ez ezik unibertsoa bera ere irudikatu duelako.

Ez, alderantziz: gu eta gure pentsamendua unibertsoan gaude, gu materia gara, eta materiak pentsatzen du. Beste misterio bat da hori: pentsatzeko gaitasuna lortu duen materia multzo bat gara. Gu pentsatzen hasi aurretik ere, fisika hortxe zegoen. Eta, Big-Bang-aren garaikoa beharbada ez, baina badirudi azken milioika urteetako fisika berbera izan dela. Hori bai, ez gara ohartu: fenomeno fisikoak berdin-berdin gertatu badira ere, fenomeno fisikoen esplikazioa aldatu egin da. Egia da fisikaren eta edozein jakintzaren oinarrian pentsamendua eta beraz hizkuntza daudela, baina unibertsoa, lege fisikoen arabera dabilena, gu baino lehenagokoa da. Eta azken batean guk soilik unibertsoaren alde jakin eta mugatu bat geureganatzen dugu, hautemateko eta pentsatzeko gure gaitasuna mugatua baita.

Fisikak unibertso osoan funtzionatzen badu, baita gizakiongandik aparte ere, ez genuke unibertsaltasun hori hitzez hitz hartu eta ondorioztatu beharko edozein estralurtar adimendunek ere dagoena ulertzeko fisika erabili beharko lukeela?

Ez dakit. *A priori* batzuk erabiltzen ari gara hor, baina ez dugu *a priori* horiek baieztatzeko oinarririk. Arras eszeptikoa izan beharra dauka zientziak. Fisikan zuk nahi duzun hipotesia asma dezakezu, baina hipotesiak gero sutan frogatu behar dira, esperimentuan. Hipotesiaren araberako aurreikuspenak bete egin behar dira, behin eta berriro egiaztatu. Esperimentuaren bahea pasatzen ez badu, hipotesiarena da akatsa, ez esperimentuarena. Hotz eta zorrotz eta fin ibili behar du zientziak kausa-ondorio loturak ezartzeko orduan. Beste nonbait bizidunak izatea, auskalo, baina uste dut probabilitate handiak daudela, milioika eta milioika planeta eta galaxia daudenez. Orain, ez dut uste gure biziaren antzekoa izango denik, gu bitxo arraro batzuk gara, gure planeta honetan bertan ere. Kontuan hartuta zein kontingentea eta ustekabekoa izan den biziaren bilakaera Lurrean, normalena litzateke bizi estralurtarra gurearen zeharo bestelakoa izatea. Dena den, nik uste dut fisikak edonon balioko duela berdin. Uste dudala diotsut, ez daukat-eta elementurik hori behar bezala frogatzeko. Hipotesi hori aintzat hartuta ari dira botatzen zundak espaziora. Bide batez: urrutiko planetetara iritsi diren zundek ez dute materia diferenterik topatu, gure Lurrean aurki ez dezakegunik, agian eguzki-sistema berberean gaudelako, edo ez direlako gai materia desberdina hautemateko.

Berrogeita zazpi urte egin dituzu irakasle.

Unibertsitatetik kaleratu gintuzten hamabost urteak ere zenbatuta, orduan bai. Einsteinek dio hezteko metodo arrazoizko bakarra eredua ematea dela. Bat nator. Einsteinentzat, irakaskuntza arte bat da, eta maisuaren artea da ikasleengan iratzartzea lanerako eta ezagutzarako alaitasuna. Motibazioa da heziketarako bidea, eta, motibatzeko, ikasteak eta ezagutzeak dakarren gozamena kutsatzen jakin beharra dago. Eskolaren helburua libre pentsatu eta lan egingo duten pertsonak formatzea da, interes nagusi izango dutenak jendartea zerbitzatzea. Lanaren emaitzak plazera eman behar digu, eta garbi ikusi behar dugu emaitza hori jendeari onuragarri zaiola. Einsteinek adierazi zuen ere, benetako heziketa dela eskolan ikasitakoa ahaztutakoan gelditzen zaizuna, eta ez dakit horrekin ados nagoen; ondo ulertzen ote dudan ere ez dakit.

Literaturia jaialdia antolatzen duen lan taldea, ekimenaren aurkezpenean. RUBEN PLAZA

Literaturia, plazer iturria

Zarautz euskal letren plaza bilakatuko da maiatzaren 24tik 27ra. Literaturia jaialdiaren 10. edizioak aingura botako du herrian, literaturzale guztiak erakartzeko asmoz

JONEBATI ZABALA

AURRETIK odola, larrua, ispiluak eta beste hainbat izan diren bezala, aingura da Literaturiako aurtengo gaia eta literaturzaleak erakartzeko amua. "Elementu arrunta da baina oso metaforikoa, eta literaturan asko erabilia. Oso gertuko erreferentziak dauzka: Anariren *Aingura hegodunak* edo Jon Benitok idatzitako *Aingurak erreketan* liburua, esaterako". Ana Galarraga antolakuntzako kidearen esanetan, aingurak "asko du nahi eta gatazkatik", non nahi duzun bota aingura eta zenbat kostatzen zaizun batzuetan altxatzea, gogoak, tentsioa... Egitarauari so eginez gero, badirudi aurten ere asmatu dutela gaiarekin, izan ere, sortzaileek hainbat lekutatik heldu diote proposatutakoari eta antolatzaileak pozik agertu dira.

Hamar urte egingo ditu aurten Literaturia jaialdiak. Larrabetzun sortu zen 2008an eta bertan egin zituen lehen bost edizioak. Datorren hau Zarautzen egiten den bosgarrena da. Urteak igaro izanagatik ere, helburuak berberak izaten jarraitzen dutela dio Galarragak, "euskal letren plaza" izatea, hain zuzen. Aztertu dezagun esaldia: *Euskal*, euskaraz eta euskara hutsez; *letren*, letrak modu zabalean hartuta, antzerki, musika eta hitzei lotuta; eta *plaza*, hori baita bere ezaugarri nagusia, plazan biltzen direlako sortzaileak, argitaletxeetako jendea eta irakurleak, "guk egiten duguna da amuak bilatu jende hori literaturaren ertzetan daudenak, bakoitza bere esparruan, elkartzeko, elkarrekintza hori sustatzeko".

AUKERATU BEHARRA Antolatzaileen hitzetan, jaialdia Larrabetzutik Zarautzera lekualdatu zen lehen urtea trantsizioa izan zen, bigarrena *boom*-a, eta ordutik, jendeak jada ezagutzen du eta aukeratu egiten du egitarauan gehien interesatzen zaiona. "Jaialdia asko hazi da eta beste publiko mota batzuk ere hurreratzen hasi dira: gazteak, haurrak... Eskaintza zabala da oso, eta aukeratu beharra dago", azaldu du Galarragak.

Aurtengo edizioan ere hiru toki eta ardatzetan banatzen da Literaturia, Bermudetako triangelua osatuz. Modelo aretoa obretan dagoenez, emanaldiak herriko Kale Nagusian dagoen Antoniano aretoan izango dira oraingoan; liburu aurkezpenak Garoa liburu dendan; eta liburu azoka eta umeentzako gunea Musika plazan.

Edizio honetan omenaldi bi prestatu dituztela kontatu du Galarragak. Umeen gunean, *Literattipia*-n, herritar bat omenduko dute, Jesus Mari Odriozola *Txiliku*, hain zuzen. "Oso ezaguna da, oso idazle oparoa, bereziki haurrentzat. Festa bat izatea nahi dugunez, egindako guztia eskertu nahi diogu eta bera pozpozik dago". Bestetik, emanaldien egitarauari irekiera emateko Joxean Artzeren omenaldia antolatu dute eMe taldearen eskutik eta Oier Guillan idazlearen parte-hartzearekin.

Emanaldien artean, antzerkia, musika eta zuzeneko marrazketa konbinatuz *Biziminak* ondu du Itzel konpainiak. Egun berean, Miren Narbaizak eta Joseba Baleztenak hitzak eta musika jarriko dizkiote Josevisky marrazkilariaren *Aingurak* komiki-sailari.

Igandean gogoetarako tokia izango da. Ainguraren ideiatik abiatuta, *Oroimenaren aingura: Alzheimerra eta sorkuntza* solasaldia prestatu dute, alzheimerraren inguruan. "Oroitzapenak dira gure izatea ainguratzen gaituztenak, eta horiek galtzen ditugunean izate edo nortasun hori galdu egiten dugu". Horretan oinarrituta, eta zaintzaren inguruan egindako lanak oinarri harturik, Anjel Lertxundik, Andoni Tolosa *Morau*k eta Maddi Zubeldiak azalduko dute "drama pertsonal eta sozial" batetik zelan ateratzen den. Bukatzeko, Txakur Gorria sormen kolektiboaren *Lau* ikuskizunak itxiko du Literaturia. Lau telefono deiren inguruan gertatzen den istorioa, "asko aurreratu gabe, jendearen parte-hartzea ere bilatuko dute, esperimentua izango da".

Baina kultur eskaintza ez da hor bukatzen: mikroipuinen itzulpen-tailerra eta errezitaldia, euskarazko Wikipedia tailerra, haurrentzako ipuin kontaketak... Garoa liburu dendako aurkezpenek osatuko dute jaialdiaren hirugarren zutabea,"herriko liburu dendan, mugimendu kulturalean oso inplikatuta dagoena eta kultur akuilu lana egiten duena". Urte hasieratik orain arte argitaratu diren nobedadeak aurkeztuko dituzte, elkarrizketatzaile baten laguntzaz.

LIBURUEN SALEROSKETATIK HARAGO Liburuak saltzeak garrantzia duen arren, Galarragaren hitzetan: Literaturian inportanteena jendeak irakurtzea da: "Jendeak deskubritzea irakurtzeak zer ekarpen egiten dion bakoitzari eta horrekin gozatzea, literatura plazer iturria dela frogatu nahi dugu". Sortzaileek ederto hartzen dituzte antolakuntzaren proposamenak eta eskertu egiten dute askatasun osoz nahi dutena sortzeko leku bat izatea. "Oso polita da, gainera, Literaturian emanaldi bat lehenengo aldiz aurkezten denean, ikustea zelan jaialditik kanpo askok bidea egiten duten".

Aingura altxatuz, formatu berrietara jo

ANE Labakak, Mariñe Arbeok, Nerea Ibarzabalek eta Malen Amenabarrek osatzen duten Txakur Gorria sormen kolektiboa ere presente egongo da Zarauzko Literaturian. Aurretik kulturzale gisa izanak badira ere, aurten jaialdia itxiko du *Lau*-k, euren emanaldi sortu berriak. Igandean, maiatzaren 27an, sorpresaz beteriko *performancea* eskainiko dute Antoniano aretoan.

Sortzaileen lan berrien plaza izaten da Literaturia, urtez urte. "Lau" emanaldia, jaialdirako sortu duzue propio. Baduzue zerbait aurreratzerik?
Lau telefono deik osatzen dute emanaldiaren haria. Gure zalantzen, kontraesanen eta kanpora begirako jarreren inguruko hausnarketa txikiak dira.

Zelakoa izan da 'Lau'-ren sortze prozesua?
Denboraren aprobetxamendu optimoa lortu dugu... tarte txikian aurrerapen handia. Oholtza gaineko emanaldi bakarra egin dugu honen aurretik, *Xixili*, eta oraindik neurria hartzen ari gara formatu honi. Baina gustura eta jendaurrean aurkezteko gogoz gaude.

Aingura da aurtengo gaia. Zelan lotu duzue zuen emanaldia kontzeptu horrekin?
Ez diogu aingurari zentralitate agerikorik eman, baina baleak azaltzen dira gure obran eta Anari ere aipatzen dugu...

Zuen ustez, zer ematen die Literaturia jaialdiak sortzaileei?
Plaza eta lagunarte eder bat, elkar ezagutzeko edo berriro aurkitzeko aukera. Orain arte kulturzale gisa urtero bisitatu izan dugu jaialdia, eta guretzat izugarrizko poza da tarte bat izatea egitarauan.

Euskal kulturaren elkarguneen gose



UDABERRI honetan argitaratu du *Zauri Bolodia* lana Oier Guillanek eta maiatzaren 26an, Garoa liburudendan aurkeztuko du, Iraia Elias aktorearekin batera. Horrez gain, Literaturia irekiko duen emanaldian ere parte hartuko du. Izan ere, maiatzaren 24an, Antoniano aretoan Joxan Artze gogoratuko dute omenaldi polit batean eta ondoren, eMe taldeak zuzenekoa eskainiko du. Horren baitan, Guillanek Artzeren hainbat testu errezitatuko ditu euren musikaz lagunduta.

Zer deritzozu aurtengo gaiari: aingura?
Sugerentea, niri egia esan itsasoaren inguruko iruditeriaz gain, *gura*-k ekartzen dizkit gogora, nahiak, desioak.

'Zauri Bolodia' liburua aurkeztuko duzu aurtengo Literaturia jaialdian.
Bai, udaberrian plazaratu dut liburua, eta Iraia Elias aktorea izango dut lagun aurkezpenean. Solasaldi modukoa egingo dugu elkarrekin. *Zauri Bolodia* liburu berezia da, narrazioa, poesia, saiakera eta antzerkia nahasten dituelako. Gogotsu nago publikoarekin zuzenean kontrastatzeko, ea zer nolako harrera izan duen, berezitasun horretan.

Liburua aurkezteaz gain, eMe taldearekin batera emanaldi batean parte hartuko duzu. Zer prestatu duzue?
Berez, haien kontzertua izango da, batez ere. Diskoa plazaratu zuten Durangoko Azokan, eta hauxe taldearen lehen zuzenekoa izango da. Kasu honetan, neuk nolabaiteko intro bat egingo dut, 10 minutu ingurukoa, haien musikaz lagunduta. Bertan Joxan Artzeren hainbat testu errezitatuko ditut. Oso inprobisatua izango da, elkar entzutean oinarrituta. Ondoren haien kontzertuko lehen kantan ere ahotsa sartuko dut, Artzeren letra batekin hor ere.

Zelan sortu zen elkarlan hori?
Haiek banaka egin duten ibilbide artistikoa jarraitu izan dut aspalditik, eta haiek ere bazuten nire berri; luzez elkarrengandik gertu edo gerturatzen ibili gara, baina orain arte ez da suertatu elkarrekin lan egiteko aukerarik. Haien diskorako letra batzuk idazteko eskatu zidaten, azkenean hiru izan dira. Egia esan, luxua izan da, oso gustuko dudalako haien musika. Haiek ere Artzerekin harreman estua zuten, eta hari guztiak lotuta sortu da haien lehen kontzertua Artzeren omenezko ekitaldi batean izatea, eta bertan elkarrekin igo ahal izatea oholtzara.

Zelako garrantzia du Literaturia bezalako jaialdi batek? Sortzaileentzako zein bisitarientzako.
Garrantzia itzela, euskal kulturarentzat erakusleiho eta bozgorailu beharra izateaz aparte, horrelako elkarguneen gose ere bagarelako: elkarguneak sortzaileen artean, eta baita ere nire ustez aktiboa den publikoaren edo irakurlegoaren artean. Horrelako ekimenak nolabaiteko kultur arnasguneak dira, eta idealena litzateke horrelakoak haien artean saretu ahal izatea, harremanen eta kolaborazioen bitartez besterik ez bada ere.

EMANALDIAK

Maiatzak 24, osteguna:
20:00: Iñurritza Elkartean, 'Autobiographical'.

Maiatzak 25, ostirala:
17:00-19:00, Etxezabalan: Mikroipuinen tailerra.
19:30, Antoniano aretoan: 'Artze gogoan'. Jarraian, eMe taldearen kontzertu berezia (Haritz Harreguy, Nora Izagirre eta Ruben Caballero), Oier Guillanen parte-hartzearekin.

Maiatzak 26, larunbata:
- Mikroipuinen itzulpen-tailerra.
- Euskarazko Wikipedia tailerra, Etxezabalan.
- 13:00: 'Mundutik euskarara mikro-ipuinez' errezitaldia (EIZIE).
- 17:00: 'Biziminak' emanaldia (Itzel konpainia, Itziar Elias, Maddi Irazoki eta Dani Irazoki).
- 19:30: 'Zer hartu ontzitik, itsasoa harri bihurtzen bada' (Josevisky, Miren Narbaiza eta Joseba B. Lenoir).

Maiatzak 27, igandea:
- 12:00: 'Oroimenaren aingura: Alzheimerra eta sorkuntza'. A. Lertxundi, Morau eta M. Zubeldia.
- 17:00: Txakur Gorriaren 'Lau' emanaldia.

MUSIKA PLAZA

Maiatzak 26, larunbata:
- Goizean eta arratsaldean: Liburu Azoka eta Irakurleen Txokoa.
- 11:30: ipuin-kontaketa, Maite Franko: 'Mundu-ipurdiak'.
- 17:00: ipuin-kontaketa, Miriam Mendoza: 'Hasiera guztiak du bere amaiera'.

Maiatzak 27, igandea:
- 11:00-13:30: Liburu Azoka.
- 11:30: ipuin-kontaketa: J. K. Igerabide 'Lili-mamitan lamia'.
- 12:30: Literattipia.

LIBURU AURKEZPENAK

Maiatzak 26, larunbata, Garoan:
10:20: 'Errepidean'. Jack Kerouac.
11:00: 'Zauri Bolodia'. Oier Guillan.
11:40: 'Arima Animalia'. J. Lopez-Mugartza.
12:20: 'Zu entzuteko gaude'. X. Mendiguren.
13:00: 'Neska bat leku inposiblean'. X. Amuriza.
13:40: 'Bioklik'. Asel Luzarraga.
16:20: 'Genero nahasmendua'. Judith Butler.
17:00: Keinu konplizeak. A. Plaza eta K. Cid
17:40: 'Erreka haizea. Botere, isilpen eta herioaz'. S. Gonzalez.
18:20: 'Emakume burugabea'. A. Mendizabal.

Iker Aizkorbe

Aretxabaleta, 1976

Ikus: www.ikeraizkorbe.com

Datorren astean...

Mikel Tapia